

BERTSOLARITZA JORRATZEN

XENPELAR BERTSO ESKOLA

EKITALDIEN BERRI EMANEZ

MADALENETAKO BERTSO SAIOA

Iazko Santio egunez, ohiturari jarraiki, madalenetako egitarauaren barnean, bi bizkaitar aritu ziren bertsoan: Xabier Amuriza eta Igor Elortza. Zaleok gozatzeko moduan, saio ona eskaini baitzuten; euren maila handiari dagokiona. Bi bertsolariok aski ezagunak dira bertso munduan. Xabier, beterranoa, Eukal Herriko txapela bi aldiz jantzia da; berak irabazi baitzuten 1980an eta 1982an jokaturakoak. Igor, gaztea, Bizkaiko Txapelketa 4 aldiz irabazia da eta Txapelketa Nagusiko finalista azken 2 edizioetan.

Iazkoan, Foru Plazako obrak medio, Zumardian kantatu zuten, entzulego multzo polita inguratu zelarik.



2005eko Santio eguna. Xabier Amuriza eta Igor Elortza kantari, Zumardian

VII. TXANTXANGORRI SARIA

Herri mailako Bertsolari Txapelketa hau 7. aldiz jokatu zen iazko urriaren 22an, Zamalbidetako Auzolan Elkartearen, afalostean. Sei bertsolarik kantatu zuten, Jon Ansa garaile gertatu zelarik, Iker Goñi, bigarren sailkatua, buruz burukoan gainditu ondoren, saio txukun baten ostean.

Kanporaketa, Orereta Ikastolan (Esmalterian) jokatu zen urriaren 14an.

Lan hau argitaratzen den garai beretsuan jokatu da aurtengoa, hau da VIII. Saria.



Jon Ansa kantari eta entzulegoa adi, Auzolan elkartean



Joxe Luis Zabala, Jon Ansa, irabazleari, txapela ematen

XVII. BERTSOPAPER LEHIAKETA. “ZAPIRAIN ANAIK” SARIA

Urtero bezala, Bertsopaper Lehiaketa hau helduentzat antolatzen da. Iazko Santo Tomas egunean Errenteria Hiria Kulturgunean banatu ziren sariak, emaitza hauekin:

- Lehen Saria: **MUTIL GAZTEEN JANZKERA (KANTZONTZILOSUAK)**. Exteban Martiarena Labandibar. Oiartzun.
- Bigarren Saria: **BIGARREN GIBELA**. Nikolas Zendoia. Zarautz.
- Akzesit (aipamen berezia): **EZEREZAREN PAREKO**. Karmele Mitxelena Etxebeste. Oiartzun.



Maritxalar, E. Martiarenari saria ematen



Karmele Mitxelena, akzesita jasotzen

VII. BERTSOPAPER LEHIAKETA. “IBON ZABALA” SARIA

Aurreko urteetan bezala, Bertsopaper Lehiaketa hau 16 urte arteko gazteentzat antolatzen da, Oarsoaldean mailan (Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia). Emaitzak, hauek izan ziren:

- Lehen Saria: Hutsik
- Bigarren Saria: Hutsik
- Hirugarren Saria: **BERTSO ESKOLAKO BIDAIA**. Aitzol Pikabea Ozio. Errenteria-Orereta.

Aitzol gaztea, Xenpelar Bertso Eskolako kidea dugu.

SANTO TOMAS EGUNEKO BERTSO SAIOA

Abenduaren 21ean, bertsopaper sariak banatu ondoren, bat-bateko ohiko saioan Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze, Jokin Uranga, Onintza Enbeita, Iker Goñi eta Arkaitz Oiartzabal, aritu ziren Errenteria Hiria Kulturgunean. Gai-jartzaile lanetan, Kepa Isasi sanjuandarra. 3 egun lehenago, hau da 18an, Iturriaga eta Mendiluze, Barakaldoko BEC-en, Txapelketa Nagusian finalistak izan ziren, Unai txapelburorde gertatu zelarik.



Santo Tomas eguneko bertso saioa, Errenteria Hiria Kulturgunean



Unai Iturriaga kantari. Txapeldunordea berezia da, itxura nahiz estilo aldetik



Xenpelar Bertso Eskolako gaztetxoak, Edurnerekin

SANTA AGEDA BEZPERAKO KOPLAK

Aurtengo otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, Xenpelar Bertso Eskolako kideok, Ereintzako gazteekin eta Xenpelar Euskaltegikoekin bat eginik, herrian zehar ohiko erronda egin genuen, Xabier Vesgaren zuzendaritzapean. Herria girotzeko ekitaldia, xumea bezain polita izan zela esan genezake



Santa Ageda bezperan, koplak kantatzen

GR-8 BERTSO BIDEA

Iazko GR-5, (Lasarte, Orio, Hernani, Oiartzun eta Errenteria-Oregeta) aurten GR-8 bihurtu da, Zarautz, Lesaka eta Mallabia ere mimatu baitira parte hartzera. Xenpelar Bertso Eskolako bertsolariak, Errenteria-Oregetaren izenean, beste zazpi talde horiekin batera, lehiari dira. Urtean zehar, 14 saio egingo dituzte guztira; hauetatik 7, gure herrian eta beste 7, aipaturiko herrietan. Finala, 2 onenen artean jokatuko da. Orain arte egindako saioetan, txukun aritu dira; hala ere, ez da erraza izango iaz bezala finalera iristea. ■



Iker Goñi kantari



Josu Oiartzabal bertsoetan

